

Ikastola familia agurgarria:

Azaroaren 4an euskalgintzak deitutako **MANIFESTAZIOA** egingo da Bilbon, **17:00etan Euskaldunatik abiatuta**. Manifestazioa **euskararen normalizazioaren kontrako oldarraldiaren testuinguruan** kokatzen da. Izan ere, azkenaldian auzitegietatik areagotu egin dira euskararen sustapena eta normalizazioa helburu duten hainbat neurriren aurkako sententziak.

Argi dago ez direla sententzia isolatuak, baizik eta botere judizialek hizkuntza-politika aurrerakoiak mugatzeko eta herritarron hizkuntza-eskubideak murrizteko joera gorakorra: oldarraldi bat. Izan ere, sententzia guztien elementu komun bat dut: gazteleraren nagusitasuna ezartzea herritarron hizkuntza-eskubideen gainetik, eta beraz, oinarrizko eskubideen kaltetan.

MANIFESTAZIOA

AZAROAK 4
17:00
EUSKALDUNA
BILBO



OLDARRALDIAREN
EUSKAREKIN
BAT
EUSKARAZ
BAT
AURREAN

Horregatik, **azaroaren 4ko manifestazioa** euskalgintzak deitu duen arren, hizkuntza-aniztasunean, justizian eta berdintasun sozialean sinesten duten **eragile eta norbanako guztiei gonbidapena luzatzen zaie oldarraldiaren aurrean euskararekin bat egitera, euskaraz bat izatera**.

Guztion indarra beharko dugu azaroaren 4an oldarraldiari erantzun sendoa emateko.

Animatu zaitetz! Denon artean egingo dugu!